



IRUNGO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA EN EL AYUNTAMIENTO DE IRUN

V. Plangintzaldia (2013-2017)

- ✓ 2014ko abenduak 30eko Alkatetzaren 2126. Ebazpenaz onartuta.
- ✓ Osoko Bilkuraren 2014ko Otsailak 26ko saioan berretsita.

V Periodo de Planificación (2013-2017)

- ✓ Aprobado por Resolución de Alcaldía nº 2126 de 30 de diciembre de 2014
- ✓ Ratificado por el Pleno en sesión de 26 de febrero de 2014.

16. artikulua. Kontratazio administratiboak.

1. Kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak Irungo Udalak berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei eta horietan uneoro errespetatuko dira hiritarren hizkuntza-eskubideak.

2. Kontratuen baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

3. Kontratuaren bidez eman beharreko zerbitzuaren prestazioak herritarrekiko harreman zuzenak dakartzanean, baldintza hauek beteko dira:

a) Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.

b) Herritarrentzako inprimakiak, oharra eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko ditu enpresa esleipendunak, herritarrek berariaz inolako aukeraketarik egin ez badu.

c) Irungo Udalaren kontratu bat esleiturik duten entitateek edo pertsona fisikoek, kontratuaren jardunaren ondorioz sortutako agerpen publiko orotan bi hizkuntza ofizialak erabili behar dituzte.

Artículo 16.- Contrataciones administrativas.

1. Los actos y actividades o servicios mediante contrato se llevarán a cabo como si fueran efectuados o prestados por el mismo Ayuntamiento de Irun, y en todo momento se respetará en ellos los derechos lingüísticos de los ciudadanos.

2. Las condiciones administrativas y el pliego de condiciones técnicas de los contratos serán publicados en las dos lenguas oficiales.

3. Cuando la prestación del servicio a prestar mediante contrato implique la relación directa con los ciudadanos, se cumplirán las siguientes condiciones:

a) El contratista en todo momento respetará durante la duración de su prestación el derecho de los usuarios y ciudadanos en general a ser recibidos en las dos lenguas oficiales.

b) La empresa adjudicataria redactará en euskera y en castellano los impresos, avisos y notificaciones dirigidas a los ciudadanos, caso de que éstos no hagan voluntariamente ninguna elección al respecto.

c) Las entidades o personas físicas adjudicatarias de algún contrato con el Ayuntamiento de Irun tendrán que hacer uso de las dos lenguas oficiales en todos los actos públicos que con motivo del contrato se convoquen.

Kontratazioa egin eta kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte kontratudunek atal honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta erabilitako hizkuntza ofizialen zuzentasuna zaintzeko.

Esleipenaren helburua herrilan bat denean, jende aurrerako seinale, txartel eta oharrak bi hizkuntza ofizialetan idatzirik ezarri behar dira.

4. Kontratuaren helburua laguntza edo aholkularitza zerbitzu bat eskuratzea denean, baldintza hauek beteko dira:

a) Esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko ditu lanak, kontratua egiten duen organoak zehazki besterik adierazten ez badu. Irungo Udalak ez du bere gain hartuko mota horretako kontratu baten bitartez sortutako lan idatzien itzulpenik.

b) Hizkuntza ofizialen erabilera zuzena zaindu eta begiratzea kontratua egiten duen organoaren erantzukizuna izango da eta, horretarako, itzulpen zerbitzuaren erabateko laguntza eta aholkularitza izango ditu.

5. Aurreko puntuetan aipatutako hizkuntza neurriak eta horiek ez betetzeak dakartzaten ondorioak kontratu bakoitzaren baldintza administratibo orokor eta berezien agirian jaso eta zehaztu behar dira derrigorrez "Irungo Udalean eta zuzenbide pribatupeko ente publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-baldintzak" jarraibidean jaso bezala, eta kontratua egiten duen organoaren erantzukizuna izango da hala egitea.

6. Artikulu honetako 3. ataleko a), b) eta c) puntuetan eta 4. ataleko a) puntuan jasotako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Errege dekretu Legegilearen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko testu bateratuaren ondorioetarako eta, hortaz, baldintza horiek ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, aipatutako legearen 212. artikuluari jarraikiz.

Los órganos competentes en la gestión de las contrataciones tomarán las medidas necesarias para garantizar que los beneficiarios de las mismas cumplen con todo lo especificado en este artículo y velar por el correcto uso de las lenguas oficiales.

Cuando el objeto de la adjudicación del contrato es una obra pública, avisos, señales y carteles públicos habrán de redactarse en las dos lenguas oficiales.

4. Cuando el objeto del contrato sea la adjudicación de un servicio de ayuda o asesoría, se cumplirán las siguientes condiciones:

a) El adjudicatario deberá presentar sus trabajos en las dos lenguas oficiales, caso de que el órgano adjudicador del contrato no indique otra cosa. Los trabajos de traducción de los escritos que surjan de los trabajos correspondientes a dichos contratos no correrán a cuenta del Ayuntamiento de Irun.

b) El control del uso correcto de las lenguas oficiales será competencia del órgano adjudicador de cada contrato, para lo que contará con la total ayuda y asesoría del servicio de traducción.

5. El documento de condiciones generales y especiales de cada contrato recogerá las medidas establecidas en los puntos anteriores así como las consecuencias que conlleva su falta de cumplimiento, y de manera obligatoria se cumplirá la instrucción en la que se especifican "Las condiciones lingüísticas que a la hora de formalizar los contratos administrativos rigen y son de estricto cumplimiento en el Ayuntamiento de Irun y entes públicos de derecho privado", y será responsabilidad del órgano adjudicador del contrato que así suceda.

6. Son de obligado cumplimiento en el contrato las condiciones recogidas en los puntos a), b) y c) del apartado 3 y en el punto a) del apartado 4 del presente artículo y según Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público la falta de cumplimiento de dichas condiciones podrá provocar la ruptura del contrato, de acuerdo al artículo 212 de la citada ley.



4.2.- Irungo Udalean eta zuzenbide pribatupeko ente publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-baldintzak.

I. Testuinguru juridikoa

- Hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan xedatu eta Euskararen erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatzen da.

- Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua 86/1997 DEKRETUAK arautzen du.

- DEKRETU horren 18. Atalean aipatzen da: "Entitate bakoitzak 17. Atalean ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:

(...)

d) *Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezen".*

- Halaber, Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen udal ordenantzaren testu bateratuan kontratuen hizkuntza-baldintzei buruz hainbat aipamen egiten dira.

- Horiengatik guztiengatik, Herri Erakundeen kontratazioen gaineko azaroaren

4.2.- Condiciones lingüísticas que han de cumplirse en la ejecución de contratos administrativos en el Ayuntamiento de Irun y los entes públicos de derecho privado en que participe.

I. Contexto jurídico

- Normativa sobre la doble oficialidad lingüística, establecida por el Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma Vasca en su artículo 6 y regulada por la Ley Básica 10/1982 del 24 de Noviembre y las normas que la desarrollan.

- El DECRETO 86/1997 regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas en la Comunidad Autónoma Vasca.

- El artículo 18 de dicho DECRETO establece lo siguiente: "Los Planes de Normalización del Uso del Euskera constituyen la formulación de la política lingüística de la entidad en orden al cumplimiento de los objetivos de normalización establecidos en el Artículo 17 y deberán recoger al menos las siguientes determinaciones:

(...)

d) *medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con el usuario y se ejecuten por terceros sean prestados a los ciudadanos en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente".*

- Asimismo, en el texto refundido de la ordenanza municipal que recoge las normas que regulan la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y en el municipio de Irun, se citan expresamente algunas condiciones lingüísticas a tener en cuenta en los contratos.

- Por todo ello, el Área de Euskera propone las siguientes condiciones lingüísticas



14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen testu bateratuak aurreikusten dituen kontratuetan hizkuntza baldintzak ezartzeko proposamena egin nahi du Euskara Arloak.

II. Irungo Udalean eta zuzenbide pribatupeko ente publikoan administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-baldintzei buruzko proposamena.

1.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Irungo Udaleko eta zuzenbide pribatupeko ente publikoetako kontratazio-organoek administrazio kontratuetako klausula administratiboen pleguetan eta kontratuak burutzean bete behar diren hizkuntza-baldintzak sartuko dituzte. Hizkuntza biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat izango da eta, bete ezik, kontratuko edozein klausula ez betetzeak oro har dakartzan ondorio berberak izango ditu. Ondokoa salbu, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean beste hizkuntza batean, edo beste hizkuntza batzuetan, soilik gauzatzeko eskatzen badute eta kontratuaren pleguan horrela jasota badago.

2.- Hizkuntza-baldintzak:

A) Klausula administratiboen pleguetako hizkuntza-baldintzak

Dagokien klausula administratiboen pleguetan, hizkuntza-baldintza hauek sartuko dira:

2.1.- Obra kontratuak eta obra publikoan lagapena (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen legearen 6. eta 7. Artikuluak)

Kontratistaren eskubideak eta obligazioak atalpean ahalpaldi hau sartuko da:

para que sean de cumplimiento en los contratos previstos por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

II. Propuesta de condiciones lingüísticas que han de cumplirse en la ejecución de contratos administrativos en el Ayuntamiento de Irun, y los entes públicos de derecho privado en que participe.

1.- Objetivo y ámbito de aplicación.

Los órganos de contratación del Ayuntamiento de Irun y los entes públicos de derecho privado en que participe darán entrada en el pliego de cláusulas administrativas de los contratos administrativos que se establezcan a las condiciones lingüísticas que deben cumplirse a resultas de los mismos. Una de las condiciones para la formalización efectiva de dichos contratos será la utilización de los dos idiomas, y el no cumplimiento de dicho precepto conllevará las mismas consecuencias que cualquier otro incumplimiento de las cláusulas del contrato. Salvo en el caso siguiente: cuando, por las características de las prestaciones objeto del contrato, el contrato haya de formalizarse necesariamente en otro u otros idiomas, y esa circunstancia esté debidamente señalada en el pliego del contrato.

2.- Condiciones lingüísticas:

A) Condiciones lingüísticas del pliego de cláusulas administrativas

En el pliego de cláusulas administrativas, se darán cabida a las siguientes condiciones lingüísticas:

2.1.- Contratos de obras (artículos 6 y 7 del Real Decreto Legislativo 3/2011)

Se dará entrada al siguiente párrafo en el apartado correspondiente a *los derechos y*

obligaciones de los contratistas:

“Kontratistak hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu eta, hartara, errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, batetik, eta, bestetik, komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleek eta hartzaileek euskara hutsean egitea erabakitzen badute. Betebehar hau bermatzeko Irungo Udaleko Euskara Arloak bere zerbitzu teknikoa debalde jarriko du kontratistaren esku.”

“El contratista cumplirá todas las disposiciones que por mor de la doble oficialidad lingüística le sean preceptivas. A tenor de ello, irán y se efectuarán en euskera y en castellano todos los rótulos, avisos, señales, comunicaciones mediante megafonía y demás comunicaciones generales, por un lado, y se efectuarán en euskera y castellano todas las comunicaciones escritas, por otro, salvo en el caso en que emisores y receptores decidan hacerlo únicamente en euskera. Para garantizar dicha obligación, el Área de Euskera del Ayuntamiento de Irun pondrá a disposición del contratista de manera gratuita su servicio técnico de traducción.”

2.2.- Zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 8. Artikulua)

2.2.- Contratos de gestión de servicios técnicos (artículo 8 del Real Decreto Legislativo 3/2011)

Hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, zerbitzu publikoa esleitzen duen administrazioak berak bete behar lituzkeen hizkuntza baldintzak bermatuko ditu. Kasu honetan, dagokien klausula administratiboen pleguetan *Kontratistaren eskubideak eta obligazioak* atalpean ahapaldi hau sartuko da:

Cuando por parte de terceros se ofrezcan servicios públicos en relación directa con los ciudadanos, esos mismos terceros habrán de garantizar todas las condiciones lingüísticas a que hubiera estado sujeta la administración adjudicataria. En este caso, se dará entrada al siguiente párrafo en el apartado correspondiente a los *derechos y obligaciones de los contratistas*:

“Kontratistak hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu eta horretarako errotuluak, oharrak, seinaleak, megafonia bidezko komunikazioak, erabiltzeko irizpideak, etiketak, ekoiztutako produktuen bilgarriak, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuak nahiz gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Inolako

“El contratista cumplirá todas las disposiciones que por mor de la doble oficialidad lingüística le sean preceptivas. A tenor de ello, irán y se efectuarán en euskera y en castellano todos los rótulos, avisos, señales, comunicaciones mediante megafonía, instrucciones de uso, etiquetas, envases de productos manufacturados, así como documentos informativos de los servicios que se ofrecen y demás comunicaciones generales. Cuando el contrato exija prestación de servicios a los ciudadanos, se utilizará el idioma elegido por el usuario en las comunicaciones orales y escritas entre la empresa adjudicataria y responsable del cumplimiento del contrato y el usuario del servicio. Si no se hace ninguna elección, los



aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horretarako, enpresa esleipendunak lanak herritarrekin zuzeneko harremanean burutzeko izendatzen dituen langileek bere lana bi hizkuntza ofizialetan egiteko gai izan beharko dute, eta esleipena egingo bada nahitaez euskara gaitasuna agiri bitartez (administraziorako araututako HE-ren agiria, edo baliokideak) nahiz Udalak egindako azterketa bitartez egiaztatu ahal izango da. Langileen euskara gaitasuna lehiaketa publikoan eskaintza aurkeztu eta balorazioa egin ondoren, baina esleipena erabaki aurretik, egiaztatu beharko du. Ondorioz, baloraziorik altuena lortu duen enpresa izango da hizkuntza eskakizunak egiaztatu beharko dituena, egiaztapen hori esleipena egin aurretik egin beharko da, nahitaez. Euskara gaitasuna egiaztaturiko langilearen bat aldatuz gero, aldatutako langilearen lekua beteko duenak hemen xedatutako hizkuntza betebeharrak bete egin beharko ditu. Baldintza hori bermatzea enpresa adjudikatariari dagokio. Gauza bera beteko da zeregin horietan jardungo duten langile berri guztiekin”.

avisos y comunicaciones de toda índole que la empresa adjudicataria y responsable del cumplimiento del contrato haga a personas físicas y jurídicas se concretarán en los dos idiomas oficiales. Para ello, los trabajadores que la empresa adjudicataria elija para relacionarse directamente con los ciudadanos habrán de ser capaces de desempeñar su labor en los dos idiomas oficiales, y para que la adjudicación se lleve a efecto podrá ser requerida la garantía de dicho precepto, mediante la acreditación del documento de capacitación lingüística en euskera (acreditación del PL correspondiente por parte de la Administración, o documentos equivalentes) o mediante examen efectuado por el Ayuntamiento. La empresa adjudicataria habrá de acreditar la aptitud de euskera de sus trabajadores una vez presentada la oferta a concurso público y tras hacerse la valoración de la misma, pero antes de decidirse la adjudicación. Consecuentemente, será la empresa que ha obtenido la valoración más alta la que tenga que acreditar los correspondientes perfiles lingüísticos, y esa acreditación necesariamente habrá de hacerse antes de dirimir la adjudicación. Caso de proceder al cambio de un trabajador con el perfil lingüístico de euskera acreditado, el trabajador que lo sustituya habrá de cumplir con los requisitos lingüísticos que aquí se han establecido. Corresponde a la empresa adjudicataria cumplir dicho requisito. Se obrará de la misma manera en el caso de los trabajadores nuevos que cubran los citados servicios.

2.3.- Hornikuntza kontratuak (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 9. Artikulua)

Klausula bat sartuko da testu honekin *Kontratistaren eskubideak eta obligazioak* atalpean:

“Enpresa esleipendunak hizkuntza bietan eskainiko ditu erabílera-eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa,

2.3.- Contratos de aprovisionamiento (artículo 9 del Real Decreto Legislativo 3/2011)

Se dará entrada a la siguiente cláusula en el apartado correspondiente a los *derechos y obligaciones de los contratistas*:

“La empresa adjudicataria ofrecerá en los dos idiomas los manuales de uso y la documentación referente a los bienes y productos objeto del contrato, incluidos los

softwareetako testuzko eta soinuuko interfazeak barne, beti ere merkatuan horretarako aukera balego edo teknikoki egin baldin badaiteke”.

interfaces texto y audio de los softwares, siempre que en el mercado haya oportunidad para ello y técnicamente sea posible”.

2.4.- Zerbitzu kontratuak (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 10. Artikulua)

2.4.- Contratos de servicios (artículo 10 del Real Decreto Legislativo 3/2011)

Klausula bat sartuko da testu honekin *Kontratistaren eskubideak eta obligazioak* atalpean:

Se dará entrada a la siguiente cláusula en el apartado correspondiente a los *derechos y obligaciones de los contratistas*:

“Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu edo bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuuko interfazeak barne, horiek hirugarren batzuk erabili edo isla publikoa balute. Kontratuak hirugarrenei edo, oro har, herritarrei zerbitzuak ematea edo horiekin harremanak izatea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden pertsonak kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Inolako aukerarik egin ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horretarako, enpresa esleipendunak lanak herritarrekin zuzeneko harremanean burutzeko izendatzen dituen langileek bere lana bi hizkuntza ofizialetan egiteko gai izan beharko dute, eta esleipena egingo bada nahitaez euskara gaitasuna agiri bitartez (administraziorako araututako HE-ren agiria, edo baliokideak) nahiz Udalak egindako azterketa bitartez egiaztatu ahal izango da. Langileen euskara gaitasuna lehiaketa publikoan eskaintza aurkeztu eta balorazioa egin ondoren, baina esleipena erabaki aurretik, egiaztatu beharko du. Ondorioz, baloraziorik altuena lortu duen enpresa izango da hizkuntza eskakizunak egiaztatu beharko dituena, egiaztapen hori esleipena egin aurretik egin beharko da,

“Estudios, informes, proyectos y demás documentos se efectuarán en los dos idiomas oficiales, incluidos los interfaces texto y audio de los softwares, caso de que hayan de ser utilizados por terceros o tengan repercusión pública. Cuando el contrato exija prestación de servicios a terceros o, en general, a todos los ciudadanos, o comunicación con ellos, se utilizará el idioma elegido por el usuario en las comunicaciones orales y escritas entre la empresa adjudicataria y responsable del cumplimiento del contrato y el usuario del servicio. Si no se hace ninguna elección, los avisos y comunicaciones de toda índole que la empresa adjudicataria y responsable del cumplimiento del contrato haga a personas físicas y jurídicas se concretarán en los dos idiomas oficiales. Para ello, los trabajadores que la empresa adjudicataria elija para relacionarse directamente con los ciudadanos habrán de ser capaces de desempeñar su labor en los dos idiomas oficiales, y para que la adjudicación se lleve a efecto podrá ser requerida la garantía de dicho precepto, mediante la acreditación del documento de capacitación lingüística en euskera (acreditación del PL correspondiente por parte de la Administración, o documentos equivalentes) o mediante examen efectuado por el Ayuntamiento. La empresa adjudicataria habrá de acreditar la aptitud de euskera de sus trabajadores una vez presentada la oferta a concurso público y tras hacerse la valoración de la misma, pero antes de decidirse la adjudicación. Consecuentemente, será la empresa que ha obtenido la valoración más

nahitaez. Euskara gaitasuna egiaztaturiko langileren bat aldatuz gero, aldatutako langilearen lekua beteko duenak hemen xedatutako hizkuntza betebeharrak bete egin beharko ditu. Baldintza hori bermatzea enpresa adjudikatariari dagokio. Gauza bera beteko da zeregin horietan jardungo duten langile berri guztiekin”.

alta la que tenga que acreditar los correspondientes perfiles lingüísticos, y esa acreditación necesariamente habrá de hacerse antes de dirimir la adjudicación. Caso de proceder al cambio de un trabajador con el perfil lingüístico de euskera acreditado, el trabajador que lo sustituya habrá de cumplir con los requisitos lingüísticos que aquí se han establecido. Corresponde a la empresa adjudicataria cumplir dicho requisito. Se obrará de la misma manera en el caso de los trabajadores nuevos que cubran los citados servicios”.

2.5.- **Sektore pribatu eta publikoen arteko lankidetzak kontratuak (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 11. Artikulua)**

2.5.- **Contratos de colaboración entre sectores privados y públicos (artículo 11 del Real Decreto Legislativo 3/2011)**

Mota honetako kontraturik balitz, dagokien klausula administratiboen pleguetan ezarri beharreko hizkuntza-baldintzak modu indibidualean aztertuko dira. Horretarako, Euskara Arloari kontrataziook bete beharko lituzketen hizkuntza baldintzen inguruan txostena eskatuko zaio.

En este tipo de contratos, serán analizadas e manera individual las condiciones lingüísticas a establecer en los pliegos de condiciones administrativas correspondientes. Para ello, se pedirá informe al Área de Euskera, para que especifique las condiciones lingüísticas que debieran cumplirse en el contrato.

2.6.- **Kontratu mistoak (3/2011 Errege Dekretu Legegilearen legearen 12. Artikulua)**

2.6.- **Contratos mixtos (artículo 12 del Real Decreto Legislativo 3/2011)**

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 12. artikulua xedatzen du kontratu batek beste kontratu mota ezberdineko baten edo batzuen prestazioak barnebiltzen baldin baditu esleipenean bete beharreko arauak erabakitzerakoan aintzat hartuko dela ikuspuntu ekonomikotik garrantzi gehien duen prestazioa. Horiek horrela, modu berean jardungo da kontratu mistoetako hizkuntza-baldintzak dagokien klausula administratiboen pleguetan txertatzerakoan, izan ere, esleipenean bete beharreko arau bezala kontsideratuko baitira *Kontratistaren eskubideak eta obligazioak* atalpean.

El artículo 12 del Real Decreto Legislativo 3/2011 establece que cuando un contrato contenga prestaciones correspondientes a otro u otros de distinta clase se atenderá en todo caso, para la determinación de las normas que deban observarse en su adjudicación, al carácter de la prestación que tenga más importancia desde el punto de vista económico. Por lo tanto, se procederá de la misma manera al establecer las condiciones lingüísticas de los contratos mixtos en el pliego de cláusulas administrativas, puesto que se considerarán como norma a cumplir en el apartado correspondiente a los *derechos y obligaciones de los contratistas*.

B) Kontratuen hizkuntza

B) Idioma de los contratos

Irungo Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak

Como establece el artículo 23 de la ordenanza municipal sobre normas para la



ematen dituen udal ordenantzaren testu bateratuko 23. artikuluan xedatu bezala Irungo Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira. Kontratuan esku hartzen duen beste alderdiak hala eskatuko balu, euskaraz bakarrik idatzita egongo dira.

3.- Betebeharren jarraipenari eta betetzeari buruz:

Euskara Arloari eskumena ematen zaio Irungo Udaleko eta zuzenbide pribatupeko ente publikoek egindako kontratuetan ezarritako hizkuntza-baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzeko. Ebaluaketa kontratua gauzatzen ari den bitartean edo bukatutakoan egin ahal izango da. Ebaluaketa, hizkuntzaren zuzentasuna eta komunikazioaren aldetik prestazioak izan duen kalitatea ere aztertu ahal izango dira. Horretarako, Irungo Udalak bere zereginak behar bezala burutzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango die kontratazio-organoei; halaber, kontsultatu ahal izango ditu zuzenbide pribatupeko ente publikoen kontratazioei buruzko datuak.

normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y municipio de Irun, los contratos que suscriba el Ayuntamiento de Irun serán redactados en euskera y castellano. Si la otra parte contractual así lo solicitara serán redactados sólo en euskera.

3.- Sobre el seguimiento y cumplimiento de las obligaciones:

El Área de Euskera evaluará hasta qué punto se han cumplido las condiciones lingüísticas que rigen en la ejecución de contratos administrativos en el Ayuntamiento de Irun y los entes públicos de derecho privado en que participe. Dicha evaluación podrá ser efectuada mientras el contrato está vigente o al término del mismo. En la evaluación podrán además ser analizadas la corrección del lenguaje utilizado y la calidad de las prestaciones en el terreno comunicativo. Para ello, al objeto de que el Ayuntamiento de Irun cumpla con rigor su cometido, le podrá ser requerida a los órganos de la contratación todo tipo de información y documentación pertinente. Asimismo, podrá consultar todos los datos referentes a las contrataciones de los entes públicos de derecho privado.